**JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA**

**5911**

AGINDUA, 2008ko urriaren 8koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, Doako Laguntza Juridikoari buruzko uztailaren 30eko 210/1996 Dekretuaren 4. eranskinean jasotako ordainsarien modulu eta oinarriak eguneratzekoa.

2008ko apirilaren 10ean eta 14an jaso ziren sail honetan moduluak igotzeko eskabideak. Abokatuen Euskal Kontseiluak eta EAEko Prokuradoreen Kontseiluko Lehendakaritzak dituzte eskabide horiek.

Doako Laguntza Juridikoari buruzko uztailaren 30eko 210/1996 Dekretuaren 32. artikuluan xedatutakoari jarraiki, ofizioz izendatutako abokatu eta prokuradoreen diru-konpentsazioa profesional horiek parte hartzen duten prozeduren tipologiaren arabera ezarritako diru-oinarri eta moduluekin bat etorriz egingo da. Dekretuaren 4. eranskinean zehazten dira modulu eta oinarri ekonomiko horiek.

Dekretu horrek, halaber, honela dio 3.2 artikuluan: Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak urtean behin 4. eranskinean jasotako ordainsarien oinarriak eta moduluak eguneratu ahal izango ditu, betiere, Abokatuen Euskal Kontseiluak eta Prokuradoreen Elkargoek aldez aurretik eskabidea eta txostena egin ondoren. Hori dela eta, 2000ko uztailaren 17ko, 2002ko urriaren 1eko, 2003ko uztailaren 23ko, 2005eko abenduaren 21eko, 2006ko irailaren 27ko eta 2007ko urriaren 31ko Aginduen bidez, eguneratu egin ziren Doako Laguntza Juridikoari buruzko uztailaren 30eko 210/1996 Dekretuaren 4. eranskinean jasotako ordainsarien oinarriak eta moduluak.

Doako Justizia izateko eskubidea zenbait pertsona fisiko eta juridikok dute (1/1996 Legeko 2., 2. eta 3. artikuluak eta EKko 119. artikulua), hain justu ere 1/1996 Legeko 6. artikuluan zehaztutako edukiarekin; bestalde, Doako Laguntza Juridikorako Batzordeei (DLJB) dagokie eskubide hori aitortzea.

«Zigor-jurisdikzioan abokaturik izendatzen ez dutenak edo ofiziozko abokatua eskatzen dutenak lagundu eta defendatzea abokatuei dagokie, baina doako laguntza juridikoa izateko eskubidea aitortzen ez bazaio, bezeroak ordaindu egin beharko ditu ordainsariak» (Abokatuen Estatutuko 45. artikulua, 658/2001 ED). Espainiako Epaitegietako Prokuradoreen Estatutu Orokorreko 45. artikuluan ere aurreikuspen berbera jasotzen da (1281/2002 ED). Doako ordezkaritza, defentsa eta letratu-laguntzarako zerbitzuak atontzea Abokatuen eta Prokuradoreen Elkargoei dagozkie (1/1996 Legeko 22. artikulua).

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL**

**5911**

ORDEN de 8 de octubre de 2008, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se procede a la actualización de los módulos y bases de compensación económica contenidos en el anexo 4 del Decreto 210/1996, de 30 de julio, de Asistencia Jurídica Gratuita.

Con fecha 10 y 14 de abril de 2008 han tenido entrada en este Departamento las solicitudes de incremento de módulos formuladas por la Presidencia del Consejo Vasco de Procuradores y el Consejo Vasco de la Abogacía.

El artículo 32 del Decreto 210/1996, de 30 de julio, de Asistencia Jurídica Gratuita, establece que la compensación económica a los abogados y procuradores designados de oficio se realizará conforme a las bases económicas y módulos fijados en atención a la tipología de procedimientos en los que intervengan dichos profesionales. Dichos módulos y bases económicas son los que se determinan en el anexo 4 del Decreto.

Asimismo, su artículo 3.2 establece que los módulos y bases de compensación económica contenidos en el anexo 4 podrán ser actualizados anualmente por el Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social, previa solicitud e informe del Consejo Vasco de la Abogacía y de los Colegios de Procuradores. En su virtud, mediante Órdenes de 17 de julio de 2000, 1 de octubre de 2002, 23 de julio de 2003, 21 de diciembre de 2005, 27 de septiembre de 2006 y 31 de octubre de 2007, se procedió a la actualización de los módulos y bases de compensación económica contenidos en el anexo 4 de Decreto 210/1996, de 30 de julio, de Asistencia Jurídica Gratuita.

El acceso gratuito a la Justicia es un derecho que ostentan algunas personas físicas y jurídicas (artículo 119 CE y artículos 1, 2 y 3 Ley 1/1996) con el contenido expresado en el artículo 6 de la Ley 1/1996, cuyo reconocimiento se atribuye a las Comisiones de Asistencia Jurídica Gratuita (CAJG).

«Corresponde a los abogados la asistencia y defensa de quienes soliciten abogado de oficio o no designen abogado en la jurisdicción penal, sin perjuicio del abono de honorarios por el cliente si no le fuere reconocido el derecho a la asistencia jurídica gratuita» (artículo 45 Estatuto de la Abogacía, RD 658/2001). La misma previsión se contiene en el artículo 45 del Estatuto General de los Procuradores de los Tribunales de España (RD 1281/2002). La organización de los servicios de asistencia letrada, defensa y representación gratuitas corresponde a los Colegios de Abogados y Procuradores (artículo 22 de la Ley 1/1996).

Ofizioz izendatutako letratuen esku-hartze profesionala diruz laguntzea Herri Administrazioari dagokio (1/1996 Legeko 37. artikulua), baldin eta doako laguntza juridikoa izateko eskubidea berariaz aitortu izan bada (1/1996 Legeko 30. eta 37. artikuluak). Abokatuen Estatutu Orokorraren 45. artikulua dela-eta elkargokideek duten obligazioa ordaintzek oda aipatu diru-laguntza.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren organoen eta egitekoen egitura finkatzen duen urriaren 18ko 315/2005 Dekretuaren 15.g artikuluan honako hau ezartzen da: «Atxilotuak eta/edo presoak ofiziozko txanda eta letratu-sorospenaren alorrean, benetako babes judiziala eta doako justizia izateko dituen eskubideak gauzatu daitezen bideak jartzea.»

Ondorioz, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VI. Tituluan, Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruzko legezko xedapenen Testu Bategina onartzen duen irailaren 27ko 1/1994 Legegintzako Dekretuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2007. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 28ko 15/2008 Legean xedatutakoari jarraiki, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren proposamenez

XEDATU DUT:

***Artikulu bakarra.***– Doako Laguntza Juridikoari buruzko uztailaren 30eko 210/1996 Dekretuaren 4. eranskinean jasotako ordainsarien oinarriak eta moduluak eguneratzea —2007ko urriaren 31ko Aginduaz aldatu ziren horiek— eta atxilotuarentzako doako ordezkaritza eta defentsa eta abokatu-laguntzari dagozkion jarduerak ordaintzeko modulu berriak ezartzea. Ondorioak 2008ko urtarrilaren 1etik honakoak izango dira.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Agindu honek administrazio bidea amaitzen du eta bere aurka interesatuek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dezakete hilabeteko epean, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari zuzenduta; bestela ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

***Bigarrena.***– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 8a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

A la Administración Pública corresponde la subvención (artículo 37 de la Ley 1/1996) de la intervención profesional de los Letrados y Letradas designados de oficio, cuando exista reconocimiento expreso del derecho a la asistencia jurídica gratuita (artículos 30 y 37 de la Ley 1/1996), como compensación de la obligación que recae sobre los colegiados y colegiadas en virtud del artículo 45 del estatuto General de la Abogacía.

El Decreto 315/2005, de 18 de octubre, por el que se establece la Estructura Orgánica y Funcional del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, dispone en su artículo 15.g) como una de las funciones del Departamento propiciar el ejercicio de los derechos a la tutela judicial efectiva y justicia gratuita en materia de turno de oficio y asistencia letrada a la persona detenida y/o presa.

En base a lo anterior y de conformidad con lo establecido en el Título VI del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, en el Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones sobre el Régimen Presupuestario de Euskadi, así como lo dispuesto en la Ley 15/2007, de 28 de diciembre por la que se aprobaron los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2008, a propuesta del Consejero de Justicia, Trabajo y Seguridad Social.

DISPONGO:

***Artículo único.***– Actualizar los módulos y bases de compensación económica contenidos en el anexo 4 del Decreto 210/1996, de 30 de julio, de asistencia jurídica gratuita, modificados por Orden de 31 de octubre de 2007, estableciendo los nuevos módulos de compensación para las actuaciones profesionales de asistencia letrada al detenido y de defensa y representación gratuitas, con efectos del 1 de enero de 2008.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– Contra la presente Orden, que pone fin a la vía administrativa podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social en el plazo de un mes o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente a la publicación de la presente Orden.

***Segunda.***– La presente Orden entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de octubre de 2008.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

UZTAILAREN 30EKO 210/1996 DEKRETUAREN 4. ERANSKINA

| TIPOLOGIA | 2008 PREZIOAK |
|---|---|
| Preso edo atxilotuari laguntzea | |
| Laguntza arrunta | 143,00 euro |
| | |
| Atzerritartasun-arloko jarduerak | |
| Administrazio-espedientea. | 228,82 euro |
| | |
| Zigor-jurisdikzioa | |
| Zigor-prozedura berezia | 686,47 euro |
| Prozedura arrunta | 350,00 euro |
| Kondenen pilaketa (helduak) | 344,23 euro |
| Adingabeak | 340,00 euro |
| Neurriak batzea (adingabeak) | 329,41 euro |
| Adingabeak. Judizioz kanpoko kalte konpontzea | 170,00 euro |
| Judizioa azkarra. | 350,00 euro |
| Kasaziozko errekurtsoa prestatzea. | 197,64 euro |
| Apelazioa | 205,94 euro |
| Espetxe-zaintzako espedienteak | 205,94 euro |
| Zinpekoen Epaimahaiari buruzko Lege Organikoa aplikatzea | 686,47 euro |
| Falta-judizioa | 171,62 euro |
| Falta-judizioen apelazioak | 102,97 euro |
| | |
| Jurisdikzio Zibila | |
| Hitzezko prozedura zibila | 346,54 euro |
| Prozedura zibil arrunta | 370,00 euro |
| Ezkontzakoa, adostasunekoa | 343,25 euro |
| Ezkontzakoa, adostasun gabekoa | 686,47 euro |
| Kontulari-banatzaile erabakitzailea | 343,25 euro |
| Hitzezko apelazio zibila | 131,76 euro |
| Apelazio zibil arrunta | 137,29 euro |
| Ezkontza-apelazioa | 205,94 euro |
| Monitorioa | 164,70 euro |

| | |
|---|---|
| Administrazioarekiko auzi-jurisdikzioa | |
| Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Arrunta. | 344,89 euro |
| Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Laburtua | 329,41 euro |
| Apelazioa. P. arrunta | 137,29 euro |
| Apelazioa. P. laburtua | 131,76 euro |
| | |
| Lan-arloko Jurisdikzioa | |
| Prozedura osoa | 329,41 euro |
| Ex Lege Judizioan defentsa | 170,00 euro |
| Erregutze-errekurtsoa | 137,29 euro |
| | |
| Prozesuz kanpoko jarduketak | |
| Atzera egitea | 57,21 euro |
| Judizioz kanpoko transakzioa | 228,82 euro |
| Uziari eusteko ezintasunari buruzko txostena | 164,70 euro |

PROKURADOREAK

| TIPOLOGIA | 2008 PREZIOAK |
|---|---|
| Zigor-jurisdikzioa | |
| Zigor-prozedura berezia | 55,33 euro |
| Prozedura arrunta | 30,16 euro |
| Apelazioa | 21,39 euro |
| Espetxe-zaintzako espedienteak | 21,39 euro |
| Zigor Kodeko 4. xedapen iragankorreko berrikusketa | 21,39 euro |
| | |
| Jurisdikzio Zibila | |
| Familia-auzien prozedura osoa | 60,43 euro |
| Arrunta. Gainontzeko auzi-prozedurak | 30,16 euro |
| Adostutako akordioa | 27,71 euro |
| Apelazio zibila | 21,39 euro |
| | |
| Administrazioarekiko auzi-jurisdikzioa | |
| Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa | 27,71 euro |
| | |
| Lan-arloko Jurisdikzioa | |
| Prozedura osoa | 27,71 euro |
| Erregutze-errekurtsoa | 21,39 euro |

*ANEXO 4 DEL DECRETO 210/1996, DE 30 DE JULIO*

| *TIPOLOGÍA* | *PRECIOS 2008* |
|---|---|
| *Asistencia al detenido o preso* | |
| *Asistencia Ordinaria* | *143,00 euros* |
| | |
| *Actuaciones en materia de extranjería* | |
| *Expediente administrativo* | *228,82 euros* |
| | |
| *Jurisdicción penal* | |
| *Procedimiento penal especial* | *686,47 euros* |
| *Procedimiento ordinario* | *350,00 euros* |
| *Acumulación de condenas (adultos)* | *344,23 euros* |
| *Menores* | *340,00 euros* |
| *Refundición de medidas (menores)* | *329,41 euros* |
| *Menores Reparación extrajudicial* | *170,00 euros* |
| *Juicio Rápido* | *350,00 euros* |
| *Preparación Recurso de Casación* | *197,64 euros* |
| *Apelación* | *205,94 euros* |
| *Expediente de vigilancia penitenciaria* | *205,94 euros* |
| *Aplicación de la Ley Orgánica del Tribunal del Jurado* | *686,47 euros* |
| *Juicio de Faltas* | *171,62 euros* |
| *Apelación de Juicio de Faltas* | *102,97 euros* |
| | |
| *Jurisdicción Civil* | |
| *Procedimiento Civil Verbal* | *346,54 euros* |
| *Procedimiento Civil Ordinario* | *370,00 euros* |
| *Matrimonial Mutuo acuerdo* | *343,25 euros* |
| *Matrimonial Contencioso* | *686,47 euros* |
| *Contador Partidor Dirimente* | *343,25 euros* |
| *Apelación Civil Verbal* | *131,76 euros* |
| *Apelación Civil Ordinario* | *137,29 euros* |
| *Apelación Matrimonial* | *205,94 euros* |
| *Monitorio* | *164,70 euros* |

| | |
|---|---|
| *Jurisdicción Contencioso-Administrativa* | |
| *Recurso contencioso-administrativo Proc. Ordinario* | *344,89 euros* |
| *Recurso contencioso-administrativo Proc. Abreviado* | *329,41 euros* |
| *Apelación P. Ordinario* | *137,29 euros* |
| *Apelación P. Abreviado* | *131,76 euros* |
| | |
| *Jurisdicción social* | |
| *Procedimiento íntegro* | *329,41 euros* |
| *Defensa en Juicio Ex Lege* | *170,00 euros* |
| *Recurso de suplicación* | *137,29 euros* |
| | |
| *Actuaciones extraprocesales* | |
| *Desistimiento* | *57,21 euros* |
| *Transacción extrajudicial* | *228,82 euros* |
| *Informe de insostenibilidad de la pretensión* | *164,70 euros* |

*PROCURADORES*

| *TIPOLOGÍA* | *PRECIOS 2008* |
|---|---|
| *Jurisdicción penal* | |
| *Procedimiento penal especial* | *55,33 euros* |
| *Procedimiento ordinario* | *30,16 euros* |
| *Apelación* | *21,39 euros* |
| *Expediente de vigilancia penitenciaria* | *21,39 euros* |
| *Revisión Disposición Transitoria 4.ª Código Penal* | *21,39 euros* |
| | |
| *Jurisdicción Civil* | |
| *Procedimiento completo de familia contencioso* | *60,43 euros* |
| *Ordinario. Resto de procedimientos contenciosos* | *30,16 euros* |
| *Mutuo acuerdo* | *27,71 euros* |
| *Apelación civil* | *21,39 euros* |
| | |
| *Jurisdicción contencioso-administrativa* | |
| *Recurso contencioso-administrativo* | *27,71 euros* |
| | |
| *Jurisdicción social* | |
| *Procedimiento íntegro* | *27,71 euros* |
| *Recurso de suplicación* | *21,39 euros* |